Andoaingo Udala
GIZARTE ZERBITZUAK

Lankidetza Hitzarmena
Convenio de Colaboración

Andoaingo Udalaren eta Xochilt Acalt elkartearen arteko
Lankidetza Hitzarmena

BILDURIK:

Batetik **Haizea Barandiaran Zubillaga andrea**, Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi Ahalduna, Andoaingo Udalaren izenean eta ordezkari gisa, Alkatetzak eskuordeturik 1350/2023 zk. duen ebazpenaren arabera.

Eta bestetik, **Maria Mercedes Brosa Aguirre** and., 777-240447-0000L cédula zenbakiarekin eta NAN ***5436** duena, **Xochilt Acalt elkarteko** Kontseilu Koordinatzailearen lehen idazkaria eta elkarte bereko legezko ordezkaria.

Bertan da baita ere Udaleko Idazkaria den **Unai Rekondo Perez jauna**, egintzaren fede emateko.

Hitzarmen hau indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusitako jarduera-ildoen barruan kokatzen da. Plan hori Alkatetzaren 1500/2026 Dekretuaren bidez onartu zen, maiatzaren 27an, eta Andoaingo Udalaren Dirulaguntzak Arautzen dituen Araudia betetzeko plangintza-tresna da, araudi hori 2014ko maiatzaren 27an onartu zelarik.

Hitzarmen honen xede den jarduera Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.13 eta 17.1.14 artikuluek Andoaingo Udalari esleitutako eskumen propioetan oinarritzen da. Era berean, dirulaguntza eman duen organoaren eskumena Alkatetzari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluaren arabera. Hori guztia Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 9.4 artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, alderdien jarduera gaitzen duen eskumen-titulua identifikatzea eskatzen baitute.

Bi aldeek elkarri behartzeko nahikoa gaitasun juridiko aitortzen diote eta jarraian aipatzen denaren arabera ekiten dute:

AZALDU DUTE

Andoaingo Udalaren iritziz udalerria espazio egokia da orain arte iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko lankidetzan eman diren zailtasunak gaindituko dituen kooperazio-prozesu bat sustatzeko. Horretarako, komunikazio- eta partaidetza-bideak sortuko eta sustatuko dira garapenerako eta sentsibilizaziorako lankidetza-proiektuetan.

1993. urtetik, Andoaingo Udalak berariazko kontu-sail bat gordetzen du aurrekontuetan Garapenerako Lankidetzara zuzenduta. Hori lankidetza deszentralizatuaren alde hartu zen konpromisoaren ondorio da. Izan ere, ziur gaude lankidetza hori ez dela gobernuaren erantzukizuna bakarrik; gizarte zibilak eta udal erakundeak ere izan daitezke eta izan behar dute Hegoaldearekiko lankidetzarako eragile, mundu justuago eta solidarioago baten aldeko eguneroko borrokan.

Andoaingo Udala
GIZARTE ZERBITZUAK

Lankidetza Hitzarmena
Convenio de Colaboración

Andoaingo Udalak garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzarako duen plana indarrean dago 1992. urtetik; diru-laguntzak emateko kontuan hartzen den irizpideetako bat proiektuaren genero eragina da.

Bestalde, Xochilt Acalt erakunde zibil bat da, irabazi asmorik gabea, 1991ko urriaren 13an sortua. Elkarte honek giza garapenerako proiektuen sustapenean egiten du lan, emakumeek landan bizi duten mendekotasuna eta bazterkeria desagerrarazteko xedez. Horretarako, emakumeek indarra hartzea bilatzen da. Xochilt Acaltek Malpaisillo izeneko hirian du bere egoitza, Larreynaga udalerrian, Leon Departamentuan, Nikaraguan.

Xochilt Acalt elkarteak genero-gaikuntzarako prozesuak garatzen ditu, emakumeek nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenean nahiz merkaturatzean subjektu aktibo gisa duten parte-hartzea sustatzen du, baliabideen eta ondasunen eskurapena bultzatzen du, teknologia alternatiboak sustatzen ditu, ugaltze osasuneko zerbitzuak ematen ditu eta emakumeen ondarea legeztatzea bilatzen du.
Xochilt Acaltek, 20 urtez jardun ondoren, badaki bere programak nori zuzendu behar dizkion: bizitzako edozein arlotan beren erabakiak hartzeko, diru-sarrerak hobetzeko, beren kabuz erabakitzeko, beren eskubideen alde borroka egiteko eta genero zapalkuntzaren eta bazterkeriaren aurka borroka egiteko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituzten emakumeei.

Andoaingo Udala eta Xochilt Acalt elkartea elkarlanean jardun dira Garapenerako eta Sentsibilizaziorako Nazioarteko Lankidetza-proposamen ezberdinetan 1997. Urtetik gaur arte. Horregatik, eskarmentu handia dute elkarrekin lanean. Era berean, 2004ko abenduaren 3an, Andoaingo Udalak, Mugarik Gabe GKErekin batera, urte ugaritarako (4 urte) hitzarmen bat sinatu zuen, “Larreynaga-Malpasilloko (Nikaragua) landa inguruneko gazteen hezkuntza formala bultzatzea” izeneko proiektuaren garapenerako.

Andoaingo Udalak eta Xochilt Acalt elkarteak 2008, 2012, 2016, 2020, 2024, eta 2025. urteetan zuzeneko lankidetza hitzarmena sinatu zuten aipatu berri dugun egitasmoa burutzeko. Azken hamasei urte hauetan gizarteekintzako egoitzak bere betebehar guztiak bete ditu eta udal administrazio honen eta Xochilt Acalt elkartearen artean lankidetza harreman handia sortu da. Lankidetza hau hitzarmenak iraun duen bitartean Andoaingo herrian burutu den hainbat jardueretan gauzatu da, jarduera horiek Andoaingo herritar eta gizatalde ezberdinei zuzendu zaizkielarik.

Aldeek azaldutakoa kontuan izanik, eta elkarri egintza honetan parte hartzeko nahikoa gaitasun eta eskumen aitortuz, Lankidetza Hitzarmen hau sinatu dute, ondoko baldintza hauen arabera

HITZBAKETAK

1. HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Andoaingo Udalaren eta Xochilt Acalt elkartearen arteko lankidetza markoa ezartzea, “Larreynaga-Malpasilloko (Nikaragua) landa inguruneko gazteen hezkuntza formala eta ekintzailea bultzatzea” izeneko proiektuaren garapenerako. Proiektu horren baitan dago landako gazteei hezkuntza formala eskaintzea, garapen pertsonalerako eta lan-merkatuan txertatzeko aukera gehiago izan ditzaten. Berariazko helburuak ondoko hauek dira:

- Antolatuta jarduten diren emakume gazteen bigarren hezkuntzako prestakuntza prozesua sustatzea eta ikasketa horiek amaitzen laguntzea, goi-mailako teknikari ikasketetarako aukera izan dezaten.
- Antolakundearen barruan gailentzen diren gazte horiei ikasketa teknikoak edo unibertsitateikasketak egiteko aukera ematea, ondoren lanmerkatua txerta daitezen.
- Lanerako eta norberarentzako aukera bezala gazteen ekintzailetza ekonomikoa laguntzea.

2. PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA ANDOAINGO UDALAREN DIRULAGUNTZA

Urte honetatik aurrera, proiektua, aurrekontua eta dirulaguntza urtekoa izango da.
2026ean egingo den proiektuaren aurrekontua, guztira, 34.477,25 eurokoa izango da. Horietatik, Andoaingo udalak 31.155,00 euro finantzatuko ditu.
Aurrekontuko partida honako hau izanik 1 0400.481.337.10.02 2026. 31.155€.

Ordaintzeko modua:
Esleitutako zenbatekoaren ordainketa bakarra, proiektua aurkeztu eta hitzarmena sinatu ondoren eta aurrekontu-izendapenak ahalbidetzen duenean. Horrek ez du Xochilt Acalt erakundea salbuesten hurrengo atalean adierazitako betebeharrak betetzetik. Hau da, proiektua amaitzean, laguntza eman zitzaien helburua erabat bete dutela justifikatu beharko dute, eta, horretarako, urteko proiektuaren guztizkoaren memoria teknikoa eta ekonomikoa aurkeztu beharko dute.

3. XOCHILT ACALT ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

a) Xochilt Acaltek hitzarmen honetan ezarritakoa betetzeko eta garatzeko beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarriko ditu, eta bera izango da Andoaingo Udalaren aurrean finantzazioaren xedea betetzearen erantzule. Elkartearen solaskide eta ordezkari gisa jardungo da María Mercedes Brosa Aguirre andoaindarra.

b) Xochilt Acalt elkarteak justifikatu egin beharko du diru-laguntzaren xedea, gastuaren diru-kontu zuritzailea izeneko sistemaren bidez, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 83/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzen duten arauetan xedatutakoari jarraiki (3. Klasusula). Hala ere, proiektuko jarduerak 2026ko martxoaren 31ra arte luzatu ahal izango dira.

Diru-kontu zuritzailea ondoren zehazten diren agiriez osatuko da: Memoria teknikoa. Honek, gutxienez, ondorengo hauek jasoko ditu:

- programaren edo proiektuaren izena;
- xedea;
- errendimendu finantzarioak, egongo balira, jasotako diru-laguntza gehitzeari aplikatu beharko litzaizkiokeenak;
- jarduketarako kolektiboa, epeak eta programaren burutzapenerako faseak, lortutako helburuen xehetasuna, hasieran aurreikusitakoari dagokionez egon daitezkeen aldaketak, eskuratutako emaitzak eta egindako jarduerak;
- transferentzia-prozesuaren eta amaitu ondoren esku-hartzeek izango duten kudeaketaren deskribapen xehekatua, eta baita etorkizunean izango duen jarraikortasunaren azterketa ere;
- erreportaje grafikoa (argazkiak, CDa, bideoa,...), diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren garapena eta burutzapena grafikoki ikusi ahal izateko;
- ondorioak.

Emandako diru-laguntzaren kargura egindako gastuak zuritzen dituen memoria ekonomikoa:

- Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, erakunde hartzekoduna identifikatuz eta dokumentua, zenbatekoa, igorpenaren data eta ordainketaren data zehaztuz. diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, aurreikusitakoarekiko eman daitezkeen aldaketak adieraziko dira.
- Merkataritza-trafikoan baliokidea den froga- balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten fakturak edo dokumentuak.
- Finantzazioa. Batek baino gehiagok finantzatutako jarduerak badira, justifikazioak egiaztatu egin beharko du diruz lagundutako jarduerari funts propioak aplikatzen zaizkion edo beste diru-laguntzetatik edo eskuhartzeari aplikatutako beste baliabideetatik datozen funtsak aplikatzen zaizkion.

Beste edozein administrazio publikok aitortutako gastuaren justifikazioa baliozkotzat hartuko da ondorio hauetarako.

- Justifikazioa diruz lagundutako jarduerak amaitu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, hau da, 2027ko martxoaren 31a baino lehen.

c) Xochilt Acalt elkarteak behar bezala zabalduko du Andoaingo Udalaren lankidetza, argitara ditzakeen agiri, argitalpen, kartel, komunikazio eta txosten guztietan. Horretarako, Andoaingo Udalaren logotipoa txertatuko du agiri horietan edo, bestela, bi aldeen artean adostutako beste edozein bide erabiliko da.

4. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN PRINTZIPIOAREN

Xochilt Acaltek, genero-ekitatearen arloan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuari buruzko xedapenak bete behar ditu, eta, bereziki, 2. eta 46. artikuluetan araututako erreferente orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin hitzarmenak sinatzen dituzten erakundeei zuzenean aplikatzekoak baitira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoa betetzeko, dirulaguntzak ematean ezarritako betebeharrak bete direla justifikatzeko memorian sexuaren arabera bereizitako informazioa emango zaie emandako zerbitzuaren azken onuradunei edo erabiltzaileei, erakundearen titularrei eta erakundeko plantillari, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatutako erakundeari.

5. JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipena egin ahal izateko eta “Larreynaga Malpasilloko (Nikaragua) landa-inguruneko gazteen hezkuntza formala eta ekintzailea bultzatzea” proiektuaren garapen egokia ebaluatzeko, batzorde bat eratuko da. Batzorde hori Andoaingo Udaleko ordezkari batek eta Xochilt Acalt elkartearen beste ordezkari batek osatuko dute.

6. HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen honek 2026eko urtarrilaren 1etik 2026eko abenduaren 31ra izango ditu ondorioak, arte, hitzarmen honen 3. klausulan ezarritakoa eragotzi gabe.

Hala ere, bi aldeek azaldu dute hitzarmen honekin abiarazten den lankidetza espazioa mantentzeko borondatea; horretarako, eta behin aldi horretan lortutako emaitzak ebaluatu ondoren, 2025eko azkenengo hiruhilekoan etorkizunerako lankidetzaren bideragarritasuna eta terminoak aztertuko dira.

7. GATAZKAK KONPONTZEA

Hitzarmen honen interpretazioaren edo aplikazioaren inguruan sor daitekeen diferentzia edo arazo oro bi aldeak ados jarriz konponduko da.